

MIKEL
LABOIA



ahotsa eta kitarra: m. laboa
pianoa, sintetizailea
eta eskusoinua: i. salvador
kitarra elektrikoa
eta flauta: e. salvador
txalaparta: jesús arce / andoni aleman

sonoa: j.l. zabala
argiak: b. karda

argazkia: j. uriarte

BENTARA NOA

*Bentara noa, bentatik nator
bentan da nere gogoia.
Bentako arrosa krabelinetan
hartu dut amorioa.*

Herrikoia

GAZTETASUNA ETA ZAHARTASUNA

*Ene izpirituan bazen zenbait pertsu
Oraino den guzia etzerait hustu.
Zertaz dutan solasa emazue kasu
Esplikatuko baitut ahal bezain justu
Zahar bezain prestu
Odola zaut hoztu
Bihotza ere laztu,
Gorputza beraztu.
Oraino gazte banintz banuke gustu!*

*Zahar gazten arteko hau da parabola:
Zuzen esplikatzia hein bat gogor da
Gaztea ez daiteke adin batez molda,
Gorputza sendo eta azkar du odola;
Zahar'ez da hola;
Iragan denbora
Etortzen gogora,
Et'ezin kontsola...
Nekez bihurtzen baita zahar arbola!*

*Egunak badoazi egunen ondotik
Ez dir'elgar iduri joaiten hargatik:
Atzo iguzkiaren distira zerutik,
Egun hobela jalgi itsaso aldetik:
Euria ondotik
Hasi da gogotik
Hedoiaren barnetik
Hortakotz badakit
Erituko naizela bustiz geroztik!*

IHESA ZILEGI BALITZ

*Ihes betea zilegi balitz
nunbait balego bakea
ni ez nintzake etxe ertzeko
loredien maitalea.*

*Ni ez nintzake oinazearen
menpeko mixerablea
oihu zekenen destinatzaile
etsipenaren semea.*

*Ni ez nintzeko iñorentzako
askandaluzko kaltea
lur hotz batetan aldatutako
landare sustrai gabea.*

*Ihes ederra zilegi balitz
urra ahal baledi katea
ni ez nintzake ontzi gabeko
itsasgizon ahalgea.*

Hitzak: X. Lete
Musika: M. Laboa

EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako iraute duela
orainak ere geroan
nolabaitezko kate geldian
unez uneko lerroan
guztia present biurtu arte
nor izanaren erroan.*

*Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta begien milla ernegai
iraganaren oroitzak.*

*Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesituarren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zarrak
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biarrak.*

*Ez nau illuntzen baratztatikan
azken loreak biltzeak
muga guztien arrazoi billa
arnas gabe ibiltzeak
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak
amets betezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.*

Hitzak: X. Lete
Musika: M. Laboa

ZAUDE LASAI

*Askatuko zaituen
zai ba zaude
Zaude lasai
Zaude ziur
askatuko zaituela
kateak itsusiak baitira hilotzen gorputzean!!*

Hitzak: J.A. Artze
Musika: M. Laboa

LIZARDI

*Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka
eta gu ere hire zain geundela
esan zioagu
ez hintzela aspaldi azaldu
etxetik
eta belatzean eseri gaituk denok
erlojuak janez
baina mezularia bidali diagu Alosko torrera
eskilara luzetan
beleak uxatzen
ote hintzen ikus zezan*

*gero kanpaiak entzun dizkiagu
zakurrak zaunkaka*

*orduan sortu haiz bidetik
balantzaka
eta hirekin aurrez aurre jarri garenean
zerraldo erori haiz gure oinetan
eta gorpu gogor hintzen
udazkenaren tronoan
hertsi dizkiagu begiak
adiosik ez
eta goizaldean
muxika hezur batetan sarturik
o petit poete
piroteknariak gabe lurperatu haugu
baratzen.*

Hitzak: Bernardo Atxága
Musika: M. Laboa

BESTERIK EZAGUTU EZ ETA...

*Besterik ezagutu ez eta
ase
irrintzi zakar bat
hautsi da zure gel^{ko} leihoan*

*besterik ezagutu ez eta
ez ote daude kezkatik
eta zeuk
ez diozu jaramanik egin*

*besterik ezagutu ez eta
ez erien artetik
ez ote zaizkizun
geroztik
txistua dena kexu
hots du
zure muinaren billa*

*besterik ezagutu ez eta
bizitzaren zenbat gauza eder
eskapatzen ari
eta zuk ez diozu
jaramonik egin
besterik
besterik ezagutu ez eta...
sabelpeko dardar ozena
ez zaitu lainotuko
hilko, hilko sortu artio.*

Hitzak: J.A. Artze
Musika: M. Laboa

SKETX

Komunikazio-Inkomunikazio. Lekeitio 5.

Komunikazioaren mundu ilunean sartu nahi gaituen eszenifikazio bat da.

Lekeitio-ak:
Soinua, fonetika, irrintzi, karraxi eta abarren bidez ekspresioaren bilatze obsesibo berezi batzuk dira. Herri honetako euskararen musika-soinu-melodi berezia oinharri-tzat hartzen duelako du Lekeitio izena serieak.

ESTUDIOA

4

IKERKETA: D. Fortearen Ikerketa bati buruz aldagaiak

Instrumentala: Kitarra
Pianoa

IZARREN HAUTSA

*Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait ginaden gu ermai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe;
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.*

*Gizonak badu inguru latz bat
menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta
hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu
saiatz hontan ezin gelditu,
jakintza eta argia;
bide illunak nekez aurkitu
lege berriak noizpait erditu
hortan jokatzu bizia.
Gizonen lana jakintza dugu;
ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta
harremanetan sartzea.
Eta Indarrak ongi errotuz
gure sustraiak lurrari lotuz*

*bertatikan irautea;
ezaren gudaz baietza sortuz
ukazioa legetzat hartuz
beti aurrera joatea.*

*Ez dadukanak ongi ohi daki
eukitzea zein dan ona,
bere premiak bete nahian
beti bizi da gizona.*

*Gu ere zerbait bagera eta
gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten;
amets eroak baztertuz bertan
sasi zikiñak behingoz erreta
bide on bat aukeratzen.
Gu sortu giñen enbor beretik
sortuko dira besteak
burruka hortan iraungo duten
zuhaitz ardaska gazteak.
Beren aukeran jabe eraikiz
ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak;
Gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz
egiztatuko dutenak.*

Hitzak: X. Lete
Musika: M. Laboa

DENBORA GALDUAREN BILA (DONESTEBE)

Nafarroako Donestebe herriari eskeinitako konposizioa.

Instrumentala: Kitarra
Musika: M. Laboa

SORTERRIKO KOPLAK

*Oihaneko pagoak blai
aideratuz hiru elai.
Ostadarraren harian dira
hirurak pausatu nahi.*

*Larrosak dira gorriak
edo bestelan xuriak.
Hagitzez dira ederragoak
neskatilaren irriak.*

*Maldan behera urratsa
betiko bidean latsa.
Hodei ilunak gaua belzten du
udazkena da ez bedatsa.*

*Usapalak ostantzean
huts bat badut bihotzean.
Zatoz maitea gure etxera
dostatzerara arratsean.*

*Eder basoan haritza
haran aldean garitza.
Fruitu antzera ontzen da hemen
gizasemeen bizitza.*

*Sagar gorriak dilindan
damea dago ganbaran
maite laztanez hartzeko eta
elkartzeko ohantzean.*

*Iluntasuna abailtzen da
luma galdu bat bezala
begiak uso, mingaina arana
zure bihotza ene aingura.*

*Hurrun gauhontzak uluka
zakur deslaidak zaunkaka.
Mende oso bat iraganen dut
zure ondoan koblaka.*

Hitzak: J. Sarrionandia
Musika: M. Laboa

HAIKA MUTIL

Laburdiko abesti herrikoia.

Instrumentala: Pianoa.

ITSASOA ETA LEHORRA

*“Xoria zaude ixilik, ez egin nigarrik;
zer profetü dükezü hola afljütirik?
Nik eramanen zütüt, xedera laxatürük,
ohiko bortütük,
ororen gaiñetik.”*

TXORIA TXORI

*hegoak ebaki banizkion
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo,
bainan
honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik...
txoria nuen maite.*

Hitzak: J.A. Artze
Musika: M. Laboa



2.



voz y guitarra: m. laboa
piano, sintetizador
y acordeón: i. salvador
guitarra eléctrica
y flauta: e. salvador
txalaparta: jesús arce / andoni aleman

sonido: j.l. zabala
luces: b. karda

fotografía: j. uriarte

BENTARA NOA

*Voy a la venta, de la venta vengo
en la venta tengo mi pensamiento.
En las rosas y claveles de la venta
he cobrado amor.*

IHESA ZILEGI BALITZ

*Si fuera lícito huir
si hubiera paz en algún lugar,
no sería el amante
de las flores que lindan la casa.*

*No sería el miserable
abatido por el dolor
hijo de la desesperanza
destinatario endurecido del grito.*

*No sería para nadie
causa de escándalo,
ni planta desarraigada
sembrada en tierra fría.*

*Si estuviera permitido huir
si fuera posible romper la cadena
no sería un navegante impotente
carente de barco.*

GAZTETASUNA ETA ZAHARTASUNA

*En mi espíritu había unos versos
de los que todavía conservo algo.
Poned atención a lo que voy a decir
pues yo tan anciano como bien dispuesto
voy a explicar lo mejor que puedo:
se me ha enfriado la sangre
ablandado el cuerpo
y endurecido el corazón.
Si todavía fuera joven
conservaría la ilusión.*

*Se trata de una parábola de viejos y jóvenes,
y es algo difícil explicarla bien;
el joven no puede controlarse a cierta edad,
su cuerpo es fuerte y su sangre vigorosa;
el viejo no es así,
el tiempo pasado
le viene a la memoria
y no puede consolarse
ya que trabajosamente se hace el árbol viejo.*

*Unos tras otros pasan los días,
pero no por ello transcurre todo igual;
ayer el sol brillaba en el cielo,
hoy vienen las nubes desde el mar...
Llueve copiosamente
desde su interior
y sé que, después
enfermaré.*

EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK

*No me asusta el cercano invierno
en el calor pleno del verano
pues sé que el presente permanece
también en el futuro,
alineados de alguna manera,
momento tras momento,
en una cadena quieta,
hasta que todo se transforme en presente
en la raíz del ser.*

*No me asusta el frío de blanco aliento
en el amanecer,
cuando todo parece
una vasta naturaleza sin vida
porque el corazón guarda la luz
de todos los hermosos soles idos
y en los ojos alertan
los mil recuerdos del pasado.*

*No me asusta el tener que expirar
en el último momento
pues aunque los caminos insignificantes
cerquen los campos vertiginosos
el vino nuevo condimentará
los viejos troncos de las vides
y nuestro presente asentará
el mañana de otros.*

*No me entristece el recoger
las últimas flores del jardín,
el andar sin aliento, más allá de todo límite,
buscando una razón,
el humillar todos los sentidos a la luz del atardecer,
ya que la muerte trae consigo un sueño
que apaciguará los sueños para siempre.*

ZAUDE LASAI

*Si esperas que te liberen
estate tranquilo
estate seguro que serás liberado;
porque las cadenas hacen feo
sobre la ropa del muerto.*

LIZARDI

*Lizardi, vino Rimbaud preguntando por tí
y le dijimos
que también nosotros te esperábamos
que hacía mucho tiempo que no aparecías
por casa
y nos sentamos sobre la hierba
a comer relojes
y enviamos mensajeros
a la torre de Alós
por ver si estabas
ahuyentando cuervos
en aquellas largas escaleras*

*luego escuchamos la campana
los ladridos de los perros*

*surgías de pronto en el camino
dando tumbos
estabas por fin entre nosotros
pero sólo eras
un cadáver
sentado en el trono de un otoño ya perdido
alguien cerró tus ojos
adiós, adiós
y amanecía sobre las zanahorias, sobre la huerta
cuando te enterrábamos,
oh petit poete, sin canciones sin cohetes
colocado cuan largo eras
entre los terciopelos de un hueso de albaricoque*

BESTERIK EZAGUTU EZ ETA...

*Sin conocer nada más y...
satisfecho!
Un áspero grito
ha roto en tu ventana y tú...
sin hacer caso!
Sin conocer nada más y tú...
sin preocuparte!*

*¿No es cierto que ahora ya,
todo el sonido es para tí
una fuerte queja
que te lleva hacia la búsqueda
de tu raíz (esencia)?*

*Sin conocer nada más y ...
el temblor sonoro de tu bajo vientre
no se te aplacará
hasta que brote
lo que ha de morir.*

SKETCH

Comunicación-Incomunicación. Lekeitio 5.

Sketch de aproximadamente 15 minutos de duración y en el que a través de la mímica, el grito y la utilización "aparente" de diversas lenguas, acompañado de música de J.S. Bach, se trata de introducir en ese difícil mundo de la "comunicación" que, a veces, las palabras con todo su significado no logran transmitir.

LEKEITIOS (Línea experimental)

Se trata de una búsqueda expresiva, en la que la palabra concreta, a veces vacía de sentido, da paso a la expresión a través del sonido, la fonética y el grito. El título de "Lekeitio" que Mikel da a la serie, se debe a que en alguna de estas "canciones", primera y tercera fundamentalmente, se toma como base de la improvisación fonética y musical el sonido-melodía que se desprende del "eusquera" hablado por las gentes de la zona de Lekeitio, pueblecito situado en la costa vizcaína.

A esta serie pertenecen por ahora, "BAGA-BIGA-HIGA", "LOA A LA DIALECTICA", "GERNIKA", "COMUNICACION-INCOMUNICACION", "ORREAGA" (Roncesvalles) y "TIERRA Y MAR" (el peine de los vientos).

ESTUDIO (Variaciones sobre un estudio de D. Fortea)

Instrumental: guitarra
piano

IZARREN HAUTSA

*El polvo estelar se convirtió un día en germen de vida
y de él surgimos nosotros en algún momento.
Y así vivimos, creando y recreando nuestro ámbito
sin descanso. Trabajando pervivimos
y a esa dura cadena estamos todos atados.*

*El hombre tiene necesidad de dominar un medio hostil,
vive esa lucha y de ella extrae su verdad.
Busca afanosamente la sabiduría y la luz, y
en esa búsqueda no conoce el descanso
se orienta por sendas oscuras
y va inventando nuevas leyes, jugándose en ello la vida.*

*El trabajo humano es conocimiento: conocer y transformar;
hermanarse con la naturaleza y llegar a desvelarla...
Crear de la negación lo positivo
y tomando la contradicción por ley continuar avanzando.*

*El desposeído sabe bien cuán hermoso es poseer,
pues el hombre trata afanosamente de satisfacer sus necesidades.
También nosotros estamos en ello,
y desde nuestra tierra debemos tratar de ver claro,
eliminando absurdos,
desbrozando el camino para avanzar el objetivo.*

*Del mismo tronco del que nacimos nosotros,
nacerán otras, ramas jóvenes que continuarán la lucha.
Que se constituirán en dueños conscientes de su futuro
por la fuerza y evidencia de los hechos
convertirán en fecunda y racional realidad
lo que en nosotros es sueño y deseo.*

DENBORA GALDUAREN BILA (DONESTEBE)

En busca del tiempo perdido (Santesteban)

Composición dedicada al pueblecito de Santesteban.

Instrumental: guitarra
Música: M. Laboa

SORTERRIKO KOPLAK

*Empapadas están las hayas del bosque
tres golondrinas el vuelo emprenden.
Sobre los hilos del arco iris
las tres posarse quieren.*

*De no ser rojas
son blancas las rosas.
Mucho más bonita es
la sonrisa de las muchachas.*

*Pendiente abajo son mis pasos
por el camino de siempre amargos.
Es otoño, no primavera
oscuras nubes cubren los cielos.*

*Cuando se esconde la tórtola
mi corazón queda desolado.
Ven, amor mío, donde mí
de noche quiero estar acompañado.*

*Hayas del bosque
trigales del valle.
Somos como los frutos
que maduran lentamente.*

*Manzanas rojas en la rama
en su habitación está la dama
suspira por mis besos
suspira por mis abrazos.*

*Cae la noche
como una pluma perdida
tu lengua es como una ciruela
tu corazón es mi ancla.*

*Gime el buho en la lejanía
ladran los perros abandonados.
Estaré todo un siglo
cantándote versos.*

HAIKA MUTIL (Arriba, mucchacho)
(Canción tradicional de Laburdi)

Instrumental: Piano

ITSASOA ETA LEHORRA

*“Calla, pajarito, y no llores;
¿qué te aprovecha así afligirte?
Yo te llevaré, soltando el lazo,
por la misma montaña,
por encima de todo.”*

TXORIA TXORI

*si le hubieran cortado las alas
hubiera sido mío (mía)
no se hubiera escapado
pero
entonces
hubiera dejado de ser pájaro
y yo...
amaba el pájaro.*



LABORA

MIKEL

MIKEL

LABORA